

kintzailletza **LEARTIBAI** | 2022 | sariak

OINARRIAK

*Lea-Artibai eskualdeko
pertsonekintzaileak bistaratu
eta errekonozimendua ematen.*



Leartibai Fundazioa toki garapenerako erakundea da. Bere helburua Lea-Artibai eskualdearen garapen ekonomikoa sustatzea da eta horretarako eragile publiko eta pribatuak ditu bidelagun.

Enpresa berrien sorrera bere misioaren parte izanik eta Lea-Artibaiko pertsona ekintzaileei errekonozimendua eman asmoz, Leartibai Sariak 2022 ekimena jarri du martxan.

1.- LEARTIBAI SARIAK 2022 EKIMENAREN HELBURUAK

- Pertsona ekintzaileak omentzea, errekonozimendua ematea
- Ekintzailtza kultura hedatzea
- Lea-Artibai eskualdean lanpostu berrien sorrera sustatzea
- Kooperatiba eredua sustatzea
- Balio erantsi altuko enpresa berritzaileak sustatzea
- Emakumeen artean, ekintzailtza sustatzea

2.- SARIA JASOKO DUTEN KATEGORIAK

Sari ezberdinak banatuko dira, hona hemen sarituko diren kategoria ezberdinak:

1. Kategoria: NEGOZIO IDEIA BERRITZAILE ONENARI SARIA
2. Kategoria: MERKATARITZA/OSTALARITZA/TURISMO/ZERBITZU ENPRESA ONENARI SARIA
3. Kategoria: KOOPERATIBA EREDUARI SARIA
4. Kategoria: GAZTEEN IDEIA ONENARI SARIA
5. Kategoria: EMAKUME EKINTZAILEARI MENTZIO BEREZIA ETA SARIA

3- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK:

1-2 Kategorietan:

- 2021 eta 2022an, Lea-Artibai eskualdean negozio berri bat martxan jarri izana.
- 2022 bukaeran edo 2023an Lea-Artibai eskualdean negozio berri bat martxan jartzeko asmoa izatea edo tramiteetan aritzea.

3 Kategorian:

- 2021 eta 2022an, Lea-Artibai eskualdean kooperatiba eredua duen negozio berri bat martxan jarri izana.
- 2022 bukaeran edo 2023an Lea-Artibai eskualdean kooperatiba ereduko negozio berri bat martxan jartzeko asmoa izatea edo tramiteetan aritzea.

4 Kategorian: 18-35 urte bitarteko Lea-Artibaitarra izatea. Honako herriren baten erroldatuta izatea ezinbesteko baldintza izango da: Amoroto, Aulesti, Berriatua, Etxebarria, Gizaburuaga, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendexa, Munitibar, Ondarroa, Ziortza-Bolibar.

5 kategorian: Lea-Artibaitarra, emakumea eta ekintzailea izatea. Kasu honetan, 2021 edo 2022an negozio berria martxan jarri izana omenduko da.

Kategoria guztietan, negozio ideiak edota enpresa berriak bere egoitza soziala Lea-Artibaiko 12 udalerrietako baten izan beharko du.

4.- SARIAK

1 **Kategoria: NEGOZIO IDEIA BERRITZAILE ONENARI SARIA:**

- 2.000€ esku dirutan, negozio ideia jada sortuta dagoen kasuan. Negozioa sortu gabe dagoen kasuan, ekintzaileak/talde ekintzaileak, enpresa sortu ostean kobratuko du saria
- Leartibai Fundazioko aholkularien laguntza, negozio ideiarene garapen eta azelerazioan
- Lea-Artibai Berrikuntza Gunean dagoen Enpresa Haztegian kokatzeko lehentasuna
- Leartibai Fundazioak kudeatzen dituen programa ezberdinetan parte hartzeko erraztasuna

2 **Kategoria: MERKATARITZA/OSTALARITZA/TURISMO/ZERBITZU ENPRESA ONENARI SARIA**

- 2.000 € esku dirutan, negozio ideia jada sortuta dagoen kasuan. Negozioa sortu gabe dagoen kasuan, ekintzaileak/talde ekintzaileak, enpresa sortu ostean kobratuko du saria.
- Leartibai Fundazioko aholkularien laguntza, negozio ideiarene garapen eta azelerazioan
- Leartibai Fundazioak kudeatzen dituen programa ezberdinetan parte hartzeko erraztasuna

3 **Kategoria: KOOPERATIBA EREDUARI SARIA**

- 2.000 € esku dirutan, kooperatiba jada sortuta dagoen kasuan. Negozioa sortu gabe dagoen kasuan, ekintzaileak/talde ekintzaileak, kooperatiba sortu ostean kobratuko du saria.
- Leartibai Fundazioko aholkularien laguntza, negozio ideiarene garapen eta azelerazioan
- Lea-Artibai Berrikuntza Gunean dagoen Enpresa Haztegian kokatzeko lehentasuna
- Leartibai Fundazioak kudeatzen dituen programa ezberdinetan parte hartzeko erraztasuna
- Sari hau ezingo dute jaso Lea-Artibaiko kooperatiben mahaiaren dirulaguntza jaso duten kooperatibek.

Kategoria honetako saria, Lea-Artibaiko Kooperatiben Mahaia Elkarteak banatzen du.

4 Kategoria: GAZTEEN NEGOZIO IDEIA ONENARI SARIA

- 2.000€tan baloratutako erosketa bono bat, Lea-Artibai eskualdeko establezimendu komertzial, taberna, jatetxe eta bestelako negozioetan gastatzeko. Gastua, 2022ko abenduaren 29a baino lehen egin beharko da.
- Leartibai Fundazioko aholkularien laguntza, negozio ideia-aren garapen eta azelerazioan
- Lea-Artibai Berrikuntza Gunean dagoen Enpresa Haztegia kokatzeko lehentasuna
- Leartibai Fundazioak kudeatzen dituen programa ezberdinetan parte hartzeko erraztasuna

Sari hau Bizkaiko Foru Aldundiak eta Lea-Artibaiko 12 udalek ematen dute

5 Kategoria: EMAKUME EKINTZAILEARI MENTZIO BEREZIA ETA SARIA

- 500 € esku dirutan
- Hamen bertokoa ekimeneko kide diren ekoizleen bertoko produktuekin osatutako otzara.
- Leartibai Fundazioko aholkularien laguntza, negozio ideia-aren garapen eta azelerazioan
- Lea-Artibai Berrikuntza Gunean dagoen Enpresa Haztegia kokatzeko lehentasuna
- Leartibai Fundazioak kudeatzen dituen programa ezberdinetan parte hartzeko lehentasuna eta erraztasuna, emakume izatearren.

KONTUTAN IZATEKOAK:

Kategoria guztietan.

- Lehentasuna izango dute negozio ideia-aren bideragarritasun plana Leartibai Fundazioko teknikarien laguntzarekin landu duten negozio ideiek.
- SARIA banatzeko, beharrezko dituen ziurtagiriak eskatu ahal izango ditu Leartibai Fundazioak.
- Sariak beraien artean ez dira bateragarriak izango.
- Epaimahaiak parte-hartzaileei deitzea posible izango da beraien proiektuak defenda ditzaten.
- Aurkeztutako egitasmoen maila baxuegia dela erabakiz gero, sariak ezerezean geratu daitezke.

5.- HERRITARRENTZAT SARIA:

Herritarrak ere epaimahaikide izango dira. Leartibai Fundazioak bere Instagramera igoko ditu lehiaketan parte hartzen duten ideia guztiak. Norbanakoek, abenduaren 5etik 12rarte Lea-Artibai

eskualdearen beharretara hobetuen egokitzen den ideia "atsegin dut" batekin klikatuz baloratu ahal izango du.

"Atsegin dut" ematen duten pertsona guztien artean, bertoko produktuekin osatuta otzara eder bat zozketatuko da abenduaren 12an. Zozketa honen irabazleari, saria Abenduaren 15ean, sari banaketa ekitaldian emango zaio.

Saria jasotzera irabazlea edo berak nahi duen beste edozein pertsona joan ahal izango da, Leartibai Fundazioak eta irabazleak adosten dutenean. Leartibai Fundazioari pertsona horrekin kontaktatzea ezinezkoa egiten bazaio, edota sariaren bila ezin bada etorri bigarren pertsona bati emango zaio aukera, modu berebean. Bata zein besteak sariaren bila etortzerik ez badute, banatu gabe geldituko da.

6.-SARI BANAKETA EKITALDIA

Ondarroan izango da, kofradia zaharreko 2. solairuko aretoan

Abenduak 15, eguerdiko 12etan (13:30etan bukatuko da)

Sariak jasotzeko, beharrezkoa izango da sari banaketa ekitaldira bertaratzea. Irabazleak bertaratu ezingo lukeen kasuan, beste pertsona bat bertaratu beharko da bere ordean. Sari banaketara bietako inor agertu ezean, sari hori banatu gabe geratuko da.

Saridunarekin kontaktatzea ezinezkoa den kasuetan, hurrengo balorazio onena duen ideia izango da saritua.

7.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Inskripzio fitxa beteta (Proiektua Leartibai Fundazioarekin landu dutenek ez dute fitxa hori bete beharrik izango)
- Enpresa sortuta dagoen kasuan: Jarduera Ekonomikoen Gainekeo Zergan alta eman izanaren kopia (IAE), Gizarte Segurantzaren alta eman izanaren ziurtagiria (036 dokumentuaren kopia) eta landutako negozio plana.
- Ideiaren baloraziorako lagungarri izan daitekeena edozein dokumentu, irudi, ikus-entzunezko aurkezpen edo/eta bideragarritasun plana.

8.- BALORAZIO IRIZPIDEAK

- Bideragarria izatea (teknikoki, ekonomikoki eta merkatura begira)
- Izaera berritzailea, balio erantsia eskaintzea edo/eta originaltasuna
- Sortuko dituen enplegu kopurua eta lanpostu horien kalitatea
- Ekintzaile taldearen profila

- Negozio ideiak Lea-Artibai eskualdearen beharrezanekin izan dezakeen koherentzia
- Ideiaren garapen maila
- Jarduera garatzeko teknologia berriak erabiltzea
- Jasangarritasunarekin izan dezakeen lotura
- Herrietan dauden elkarteren bateko kide izateko asmoa, edo kide izatea
- Guzti hauek baloratzeko erabiltzen diren ebidentzia grafikoak

9.- EPEAK

- Proiektuak aurkezteko azken eguna: 2022/11/27
- Herritarren botazioa: 2022/12/05-2022/12/12 (biak barne)
- Sari banaketa: 2022/12/15

10.- EPAIMAHAIA

- Leartibai Fundazioko lehendakaria
- Leartibai Fundazioko Ekintzailatza teknikariak
- Lea-Artibaiko Kooperatiben Mahaia Elkarteak
- Instagram bidez bere botoa ematen duten herritarrak

11.- INFORMAZIO ZABALAGOA ETA INSKRIPZIO ORRIA

Inskripzio orriak beteta email honetara bidali beharko dira: bbasterretxea@leartibaifundazioa.eus

edota, www.leartibaifundazioa.eus web guneko hasierako orrian dagoen google forms bidez bete ahalko da, kasu bakoitzean, beharrezko dokumentuak ere bertan atxikituz.

Edozein kontsulta telefonoz edo WhatsApp erantzungo da, honako zenbaki honetara deituta/idatzita: 94 616 91 72